PORRONTZO
jaiak
2009
LIBRE
EGIA
IRAILAK
12tik 20ra
EGIA

BADATOZ PORRONTXOAK! BADATOZ PORRONTXOAK!

Banengoen, bada. Zirrara moduko zerbait nabaritzen ari nintzen gorputzean; kalean jendea irribarretsu ikusi dut, ohi baino ozenago hizketan... Nahiz eta irailean gauden, udaberria hastear dela dirudi. Argi dago: urte osoan pilatutako atsekabeak bazterrean utzi eta gorputza festetarako prestatu nahian gabiltza.

Jai herrikoiak krisialdian daudela, festetan jende gutxiago dabilela, jendeak nahiago duela bideoak ikusi eta ikusi etxean geratu... Horrelako zenbat entzun dugu? Ziur zinegotziren batek antzeko zerbait esan duela. Krisialdiarekin kokoteraino nago....

Zorte pittin batekin, "krisialdia" dela-eta banketxeei emandako laguntza guri ere emango digute. Agian, likidezia txertatuko digute, dirulaguntza eskaerak eta ordutegi arazoak alde batera utz ditzagun.

Egian, aldiz, ez dago "krisialdirik". Porrontxoak bizirik daude. Nik ere nabaritu dut. Festak ondo ateratzea denon desioa da. Gure jaiak dira eta! Gure etxean, familiarekin goxo-goxo egoteko, zerbait antolatzen dugunean, den-dena ondo ateratzeko prestakuntzak egiten ditugu ilusio handiz. Gauza bera gertatzen zaigu Porrontxoekin.

Jendea ondo pasatzen, barre egiten edota "txoropitoarena" egiten ikusteko gogoa dugu. Izan ere, Porrontxoak ez baditugu "txoropitoarena" egiteko aprobetxatzen, noizko utziko dugu "eginbehar" hori? Nahiko paranoia izaten dugu urte osoan...

Gure jaiak dira: denonak! Tabernaria edo "jubileta", futbolaria edo marijakintsua, denok harro gaude bai Porrontxoekin bai auzoarekin.

Jaiak behar bezala zaintzeko, sormen gaitasuna behar dugu. Jaiek aukera ezin hobea ematen digute gustatzen ez zaiguna baztertzeko eta gustatzen zaiguna indartzeko edo hobeto prestatzeko. Beti izaten baita zerbait aldatzeko edo asmatzeko. Gauza onek hobeak izateko hazia dute barruan. Horregatik, hazia bilatzeko, festak dastatu, usaindu, xurgatu... behar dira, sormenerako hazia aurkitu arte.

Ordenagailuan aritzen ez denak nekez asmatuko du Internet, eta era berean, festetan ez dabilenak nekez aurkituko du jaiak hobetzeko giltza. Horregatik, aurten bai: baietz aurten zerbait mundiala antolatu!

Bukatzeko, ez ahaztu preso dauden auzotarrei jai egitaraua bidaltzeaz. Agian haiek ere sormenerako sukarrarekin kutsatuko direlako eta, auskalo, ideia paregabea izango dutelako!

Egitaraua

Irailak

12 Aurreporrontxoak LARUNBATA

11:00 Kalejira Egiako kaleetan, Porrontxo eta Porrontxarekin, buruhandi, hankapalo, malabarista eta trikitilariekin.

12:00 Sagardo dastatzea eta auzoko tabernen arteko pintxo txapelketa. Epaimahaian, sukaldari ezagunak Plaza Handin.

*14:00 Bazkari herrikoia, Plaza Handin.

*17:00 Haurrentzako jokoak: zapiaren jolasa, aulkien jolasa, sagar jate jolasa, brilea... Plaza Handin.

13 Krosa IGANDEA

10:30 Porrontxo jaietako XII. Herri Krosa. Sari bereziak partehartzaileentzat.

14 Aste kulturala ASTELEHENA

*17:00 Haurrentzako margo tailerra eta erakusketa. Txokolate jatea eta trikitilariak Plaza Handin.

15 ASTEARTEA

*18:00 Gladysen omenezko erakusketa, talo tailerra eta trikitilariak Plaza Handin.

16 ASTEAZKENA

*17:30 Festa brasildarra eta Capoeira emanaldia Plaza Handin.

17 Jai hasiera OSTEGUNA

16:50 Aurpegi margotzea, Plaza Gorrin.

17:00 Buruhandi eta erraldoiak, LAGUNAK txarangarekin.

17:30 Haur jetsiera Porrontxo eta Porrontxarekin.

*18:30 PIRRITX, PORROTX eta MARI MOTOTX, Plaza Handin.

20:00 Txupinazoa.

20:01 Koadrilen igoera Porrontxo eta Porrontxa, LAGUNAK txaranga eta TAUPADA batukadarekin.

22:00 Karaokea koadrilentzat, Tejeriako txosna gunean.

22:30 Dantzaldia, LAIOTZ taldearekin Plaza Handin.

00:00 INCANSABLES txaranga.

01:00 Jokoak, Plaza Handin: Banana dantza eta Twister erraldoia.

18 OSTIRALA — Haur eta Gazte eguna

*12:00 ZIRKO ESKOLA haurrentzat, Plaza Handin. Antolatzailea: Donostia Kultura.

12:00 Hamabitakoa trikitilariekin, Plaza Gorrin.

*14:00 Haur bazkaria, Gladys Enea parkean.

*14:30 Bazkaria, Plaza Handin.

*15:30 Haurrentzako pista jolasa, Gladys Enea parkean.

17:00 Aldakonea zaharren egoitzan, trikitilariak.

17:00 Sagardo dastatzea eta gazte olinpiadak, trikitilariekin Plaza Berrin.

17:00 Buruhandi eta erraldoiak, Porrontxo eta Porrontxa, eta Bolinga Sound System.

*18:00 Disko festa, Antxetarekin, Plaza Handin.

18:00 Gazteentzat ekintza sorpresa. Antolatzailea: Donostia Kultura.

19:30 Trikipoteoa, Egiako tabernetan eta txosna gunean.

20:00 INCANSABLES txaranga.

*21:00 Gazte afari herrikoia Plaza Berrin.

21:00 Kontzertua, Tejerian: THE HOSTILE, ORREAGA 778, NPJ eta DESOREKA taldeak.

21:30 Zezen suzkoa, Tejeria kalean.

22:30 Dantzaldia HAITZAMA taldearekin, Plaza Handin.

23:00 AKELARREA, Hernaniko Gazte Asanbladarekin, Tejerian.

23:30 OSO BOLINGA SOUND SYSTEM.

01:00 Jokoak, Plaza Handin: Merenge jatea eta Globoen jokua.

01:00 JATORRENAK txaranga.

05:00 Txokolate jatea Tejeriako txosna gunean.

19 LARUNBATA — Preso eta Iheslarien eguna

08:00 LAGUNAK txaranga.

*10:00 AMALURrekin, haur jolasak, Gladys Enea parkean. Donostia Kultura.

12:00 ZAZPIRETAN LEHENAK joteroak Plaza Handin.

12:30 Marmitako lehiaketa Plaza Handin.

14:30 Marmitako bazkaria, Plaza Handin.

16:00 Porrontxoetako eskubaloi txapelketa kiroldegian, Egia Eskubaloiak antolatuta.

16:30 Helduen pala finalak, trikitilariek alaituta.

16:30 IKUSKA txaranga.

17:00 HIP HOP tailerra eta grafitiak gazteentzat Plaza Berrin, URBAN 13rekin.

17:30 Buruhandi eta erraldoiak.

17:30 Jokoak, Tejeria kalean: sagardo eta fino botatze txapelketa eta haur "karrito" lasterketa auzoko abeslari eta trikitilariek girotua.

18:30 Haurren pilota finalak frontoian.

*18:30 Haurrentzako tailerrak, kiroldegiko plazan.

19:00 TRAPU ZARRAK taldearen "VAYA GANGA" antzerkia, Plaza Handin. Donostia kultura.

20:00 TREBESKA taldearen dantza ekitaldia, Irutxulo plazan.

20:30 Zezen suzkoa, Plaza Handin.

21:00 BIDE BATEZ taldearen dantzaldia, Plaza Handin.

21:00 Koadrilen afaria, kafe eta koparekin, Tejerian. Koadrilen modelo desfilea

22:30 IKUSKA txaranga.

00:00 BALDARRAK txaranga

00:30 Preso eta iheslarien aldeko kalejira, Porrontxo, Porrontxa eta zanpanzaharrekin. Ostean Aurresku herrikoia Plaza Handin.

01:30 Dantzaldia, TRAKETSekin, Plaza Handin.

01:30 Txaranga elektrikoa.

01:30 Tejeriako txosna gunean, DJ SAIOA: BLACK THINGS KOLEKTIBOA 09: Pata, Syr, Navascues, Putxero eta Jaula DJak.

02:00 LAGUNAK txaranga.

29 Euskal Jaia IGANDEA

07:00 Gosaria: oilaskoak, Plaza Handin.

08:30 JATORRENAK txaranga.

11:00 Helduen pilota finalak eta barrene herrikoia frontoian, trikitilariek girotuta.

*12:00 Bertso saioa: Jon Maia, Amaia Agirre eta Jokin Uranga bertsolariak. Gai jartzailea: Egoitz Aizpurua. Plaza Handin.

12:00 Sagardo dastatzea Plaza Handin.

*14:30 Bazkari herrikoia, Plaza Gorrin, Donosti-gain, Ur Zaleak eta Arrano elkarteen laguntzarekin.

*17:00 Herri kirolak, trikitilariek girotuta Plaza Handin.

19:00 Sardina jatea, Plaza Handin.

19:00 Erromeria, LAKET taldearekin Plaza Handin.

20:00 INCANSABLES txaranga.

21:00 Koadrilen kalejira auzoan, Porrontxo eta Porrontxarekin.

22:00 Azken traka.

00:00 Gui ar de guorld.

***Ekitaldi hauek euria egiten badu frontoian egingo dira.**

PORRONTXO
JAIAK
2009
EGIA
IRAILAK 12tik 20ra


PORRONTXO JAIAK 2009
IRAILAK 12tik 20ra • EGIA

ETXERA
PORRONTXO
JAIAK
2009
EGIA
IRAILAK
12-tik 20-ra

EGIA
IRAILAK
12tik 20ra
2009
PORRONTXO JAIAK

PORRONTXO
JAIAK
EGIA 2009
IRAILAK 12 tik 20ra